

«Euskaraldiaren helburuek berberak izan behar
al dute Orendainen eta Karkarren?»

Soziolingustika Klusterrak antolatzen dituen Txillardegi-Hausnartu Sarietan 2023ko bigarren saria lortu du Garikoitz Goikoetxea Etxeberría euskara teknikariak, “Euskararen geografia berria” lanarekin. Euskararen eta euskaldunen mapa berritzeko proposamena egiten du, Euskal Herria osotasunean begiratzuz baina tokian tokiko errealitateak ikusiz.

Hari-mutur ugari bildu dituzu zure ikerketan.

Badaude gogoeta merezi duten beste hainbat gai. Besteak beste, hemen planteatzen delako, Euskal Herria bere osotasunean hartuta, zein norabide eta abiadura desberdinak ditugun ezagutzari eta bereziki erabilerari begiratuta. Planteamendu nagusia da Euskal Herrian hizkuntza politikak zoznatan banatuta egin behar ditugula. Zonifikazioa ez dut planteatzen, noski, hizkuntza eskubideen ikuspuntutik – gaur egun Nafarroan legeak egiten duen bezala –, baizik eta hizkuntza plangintzaren edo hizkuntza politikaren ikuspegitik. Eta eskualdekako proposamen horietan uste dut bada-goela beste buelta bat emateko premia. Zer egin behar dugu eskualde tipologia bakoitzean? Uste dut gogoeta hori askotan falta izaten zailgula euskara sustatzeko egiten ditugun plangintzetan.

Nazio ikuspegia izan behar dugu, ezinbestekoa da hori, eta 2024. urteak ekarriko ditugun opari handienetakoa 23. Korrika izango da, Euskal Herriko bazter guztietan ikusiko duguna. Baina, aldi berean,

**GARIKOITZ
GOIKOETXEA
ETXEBERRIA**

«EUSKARAREN GEOGRAFIA BERRIA» LANAREN EGILEA

Txillardegi-Hausnartu Soziolingustika
Sarietan nabarmendu dute bere ikerketa
lana, bigarren sariarekin. Begirada goratu
eta Euskal Herriari osotasunetik
begiratzeko proposamena da, tokian
tokiko errealitateak ikusteko adinako
zorroztasunarekin.



NAIZ IRRATIA - BIGARREN KAFEA

beste jarduera batzuek tokian tokira egokitu behar dutela us-te dut, eta burura datorkit Euskaraldia. Euskaraldiaren helburuek berberak izan behar al dute Orendainen eta Karkarren? Planteamendu hori da lanaren funtsa, eremu bakoitzean zer eta nola egin. Horrek ez du esan nahi gaur egiten ez denik, hizkuntza politikak testuingurura egokitzen dira, bai-na egokitzapen handiago baten falta sumatzen dut, batez ere diskurtso mailan.

Egiten dena findu egin behar da, beraz.

Egiten dena tokian tokira egokitu behar da, eta badira jarduera batzuk leku batzuetan behar direnak eta beste batzuetan agian ez. Esaterako, azkenaldian boladan dago hitanoaren sustapena, Gipuzkoako hainbat herritan egin da eta oso ondo ikusten dut hori. Baina denoi datorkigu burura sustapen jarduera horiek ez dutela Euskal Herri osorako balio. Edo Tuteran hitano ikastaroak antolatuta behar ditugula planteatzen ari ote gara? Hortik noa.

Hori are gehiago fokalizatu dezakegu, Gipuzkoan bertan ere egoera ez da berdina Donostian, Irunen edo Abaltzisketan. Bultzatu nahi dugun hitano jarduera horrekin indar berbera jarri behar al dugu eremu guztietan? Edo bereziki aukerak dauden eremuetan egin behar dugu proposamena?

Planteamendu hori ez da berria, Mikel Zalbidek –nire ustez azken urteotan Euskal Herrian teorizazioaren ikuspegitik ekarpen handienetakoa egin duen euskaltzainak– askotan planteatu du arnasguneen gaia, udalerrri euskaldunen gaia... no-

labait daukagunetik abiatu behar dugula aipatu du. Eta suaren irudia erabiltzen du askotan, nola errazagoa den sua mantentzea oinarri edo brasa bat dagoen lekuetan eta zailagoa indar gutxiago duen edo ia itzalita dagoen eremuetan.

Nola definituko zenuke azken urteotan euskararen egoera soziolinguistikoak izan duen bilakaera?

Hiru ertz aipatuko nituzke. Batetik, ezagutzari dagokionez, nabarmena da Euskal Herri osoa kontuan hartuta, euskaraz dakien jende gehiago dagoela. Datuek erakusten dute eta ikusi ere egiten dugu. Due-la 40 urteko egoerarekin konparatuta, euskaldunen kopurua nabarmen hazi da. Baina horrekin batera esan beharko genuke hazkunde hori ez dela berbera izan Euskal Herri osoan, intentsitatea aldatu egin dela eta, are gehiago, badauzkagula ingurune batzuk non euskararen ezagutzak atzera egin duen, hain justu sendoen zegoen lekuetan. Eta hirugarrenik esango nuke eza-gutza gaitasunarekin lotu behar dugula. Gero eta jende gehiago daukagu euskaraz dakiena, baina dakitenen artean gero eta jende gehiagok erraz-tasun handiagoa du gaztela-niaz edo frantsesez egiteko.

Beraz, gauza bat da euskaraz jakitea, nola edo hala, eta beste gauza bat da gaitasuna eta erraztasuna. Ezagutzatik erabilerarako jauzia gero eta handiagoa dela aipatzen dugunean, derrigorrez kontuan hartu behar dugun faktorea hori da.


Gaur egun hiriburuei begiratzzen badiegu, Gasteizen, Bilbon, Iruñean –neurri apala-

goan-, Baionan -are neurri apalagoan-... gazte gehienek badakite euskaraz, baina horrek ez du esan nahi euskaraz egiteko egokierarik badaukatenik; ez egokiera pertsonalik ezta testuinguruari dagokionik ere. Euskararen ezagutza gora egiten ari da, baina azken datuek esaten digute Euskal Herrian hirutik batek dakigula euskaraz. Euskaraz egiteko, norberak jakiteaz gain, inguru bat ere izan behar da. Alde horretatik zailtasunak oraindik oso nabarmenak dira.

Aipatu duzu euskara sendoen zegoen tokietan atzera egin dela. Zer gertatu da?

Hainbat faktore aipatu daitezke, horietako bat demografikoa da. Faktore demografikoak hiru bidetatik aipatu daitezke. Batetik, inguru horietan 80ko hamarkadan emigrazio handia izan zen. Hori Tolosaldean bertan nabarmena da; jende asko etorri zen landa auzoetatik leku industrializatuagoetara, erabilera apalagoa zegoen tokietara. 2000ko hamarkadatik aurrera kontrako joera bat izan da, hiriguneetatik herri txikiagoetarako joera izan da, arnasmuneetara. Horrek aldatu egin du. Baina toki askotan behera egin du. Baina toki askotan eragina nabarmenagoa izan da erabileraren ikuspegitik.

Herri batean, euskaldunen kopurua berbera izanda, nolatan izan erabilera txikiagoa? Bertan bizi diren euskaldunen ezaugarriak begiratu beharko diegu. Migrazio mugimenduen arnasmuneak galtzeko aukera guztiak dauzkate; emigrazioak kalte egiten dielako eta immigrazioak ere eragina duela euskararen ezagutzan eta erabileran. Eta, kontuz, immigrazioa esaten dudanean ez



Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

«Gero eta jende gehiago daukagu euskaraz dakiena, baina dakitenen artean gero eta jende gehiagok erraztasun handiagoa dauka gaztelaniaz edo frantsesez egiteko»

naiz ari jatorri atzerritarreko herritarren migrazioari buruz bakarrik, Euskal Herri barruan bertan gertatzen direnez ere ari naiz, euskaldunen tipologia bera aldatzea ekartzen duelako. Nabarmena da, esaterako, Donostialdeatik Gipuzkoako beste eskualdeetara nolako mugimenduak gertatzen ari diren, Tolosaldeara eta Urola kostara nagusiki. Edo, Goierri, Beasain-Ordizia ingurutik, herri txikiagoetara. Mugitzen ari diren horietako askok

badakite euskaraz, baina beste testuinguru batekoak dira, beste hizkuntza ohitura batzuk dituzte, kuadrilla beste testuinguru batekoa daukate... beraz, ezin dugu espero lehendik herri txiki arnasmune horietan bizi diren euskaldunen jokabide bera izango dutenik. Badakigu, seguruenik, jokabide horretara gerturatzen joango direla, baina ezin dugu pentsatu aldaketa demografiko handi horrek ez duenik eraginik izango euskararen egoeran.

Datu mordoa pilatuko zenuen libururako, herriz herri, eskualdez eskualde. Datu asko eta errealitate desberdin asko.

Finean, hemen egin duguna hurbilketa bat da, Euskal Herri osoko datuen azterketak egiteko sekulako mugak ditugulako. Hiru adibide horien inguruan, EAEn daukagu datu gehien, udalerri mailan badiugu euskara ezagutzari, etxeko transmisioari eta erabilerari buruzko datuak. Nafarroara baldin bagoaz, udalerri mailan daukagun datu bakarra euskararen ezagutzari buruzkoa da, eta hori aurtengo datua da. Joan den 20 urtean ez dugu datu hori izan. Eta hirugarren maila batean izango genituzke Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Horietan ez dago udalerri mailako daturik, horrek dituen ondorio guztiak. Egoera horren aurrean, ez dakigu Nafarroa Beherean eta Zuberoan arnasmunerik gertatzen ote den, udalerri euskaldunik ba ote den, UEMAn sartzeko baldintzak betetzen dituenik ba ote den....


Lan honetan euskararen inguruan ditugun ikerketak hartu, batzuk eta besteak konbinatu, eta argazki baterako hurbilketa bat egin dugu, bere muga guztiak. Gaur egun Euskal Herri osoa hartzen duten ikerketak bi dira; Inkesta Soziolingustikoa eta Kale Erabilerari buruzko Neurketa. Neurketa hori alboratu egin dugu udalerri mailako daturik ez duelako. Inkestak badauzka probintzia mailara arteko datuak; beraz, iparraldekoa hortik osatu dugu eta hegoaldekoan hamasei urtetik gorakoak hartu ditugu, inkestak horiek hartzen dituelako kontuan eta bestela ez genuelako irudi homogeneorik izango.

**Trebiñuren kasua ere jaso du-
zue.**

Gutxitan aipatzen da. Tre-
biñu ofizialki ez da Arabaren
zati, baina hamar urtean
behin Eusko Jaurlaritzak Tre-
biñuren egoera soziolingusti-
koaren azterketa egiten du.
Hor pena bat dut, justu lan
hau atera eta hilabetera argi-
taratu zirelako Trebiñuko da-
tu berrituak. Beraz, aurreko
datuetan oinarritu gara. Tre-
biñun oraindik ez dute lortu
Arabako parte izatea, baina
euskararen aurrerakadan
pauso garrantzitsuak eman
dituzte. Araban bai eta Tre-
biñun ere bai. Badago zer ika-
sia Trebiñutik.

**Datu zaparrada horretan, zer-
baitek harritu al zaitu?**

Harritu ez, baina itxaropene-
rako, uste dut egoera berri bat
agertzen ari zaigula Euskal
Herriaren mendebaldean,
Arabaren eta Bizkaia mende-
baldean. Euskararen ezagutza na-
barmen ari da aurrera egiten,
baina lehen aipatu dugun
guztiagatik, ezin dugu espero
ezagutza egiten ari den aurre-
rabideak automatikoki erabi-
lera ekarriko duenik. Sari ba-
naketan aipatu nuen adibidea
hona ekarrita, hotz dagoen
bakoitzean ez du elurrik egi-
ten. Elurra egiteko beste fak-
tore batzuk behar dira; pre-
zipitazioa, hezetasun maila
bat... ezin dugu espero euska-
raren ezagutzak berak auto-
matikoki erabilerara ekarriko
duenik. Gaur egun euskaldun
gehien bizi den inguruetan ez
daukagu elurra egiteko bal-
dintzarik. Hotza badaukagu,
gero eta jende gehiago dago
euskaraz egiteko oinarritzko
gaitasuna duena, baina ho-
rrek ez du erabilerarik ekarri-
ko. Eta, era berean, glaziarre-
tan arazoak dauzkagu.



**Migrazio mugimenduek, bai
Euskal Herri barruan ematen
direnek bai kanpotik datoze-
nek, badute eragina.**

Euskaldunen arnasmugimenduetara
migratzen ari diren euskaldun-
en soslaiak beste bat da. Badu-
gu etxeko lan oso garrantzitsu
bat, maila teorikoan askotan
aipatzen dena, baina ez gara
asmatzen ari; harreraren gaia.
Harrera aipatzen dugu beti ja-
torri atzeritarreko migratzai-
leei begira –eta hor sekulako
hutsuneak dauzkagu–, baina
arnasmugimenduetan bereziki har-
ran hutsuneak dauzkagu, baita
barne migrazioan ere. Alegia,
Bilbotik Busturialdeko herrie-
tara migratzen ari diren horiei
azaltzen al diegu zer testuingu-
rutara datozen, eskualde ho-
riek zer nolako garrantzia dau-
katen euskararen erabilerari
begira, mezu horiekin asma-
tzen ari ote gara? Azken urte-
tan arnasmugimenduen inguruan za-
baltzen ari garen kezka handi
horretan ez ote gara ari arnasmu-
guneak ideia bukoliko batekin
lotzen? Arnasmugimenduen ez dira
bakartutako eremuak eta nola-
bait asmatu behar dugu biz-
tanle mugimendu horiek, ha-
rrera egoki baten bitartez, nola
txertatu herrian.

*«Gogoetak tokian
tokira egokitu behar
ditugu eta ezin dugu
pentsatu EAEn
egiten ari garen
aurrerapauso
horiek, batez ere
eskolaren eta
ezagutzaren aldetik,
Euskal Herri osoan
gertatzen ari
direnik»*



Eta esango nuke beste tes-
tuinguru soziolinguistikoko ba-
tuetan ere heldu behar zaiola
gaiari. Migrazioaren gaia jarri
behar dugu mahai gainean,
nahiz eta azkura handiak sor-
tzen dituen. Beharbada ez gara
ausartzen errealtate hori pa-
txadaz mahai gainean jartzera.
Baina nabarmena da: migra-
zioak euskararen aurrerabideari
eragin egingo dio nahitaez. Hiz-
kuntza guztiei, baina hizkuntza
gutxituei bereziki, eta alde ho-
rretatik badaukagu etxeko lan
garrantzitsu bat harrerarekin.

Eta harrerarekin lotuta, eus-
karaz ikasteko aukerari buruz
hitz egin behar da. Gaur egun
Errumaniako familia batek,
nahiz eta eremu euskaldun ba-
tera etorri, zenbateko errazta-
suna dauka gaztelaniaz ikaste-
ko, bai kalean bai erakunde-
eremuan? Zenbat kostatzen da
gaztelaniaz ikastea eta zenbat
euskaraz ikastea? Alde horretatik,
nola daukagu abiapuntua?
Migrazioarekin lotuta gogoeta
bat daukagu egiteko, bai udale-
rri euskaldunetan bai Euskal
Herrian, oro har.

**Euskararen inguruko kezka
eta gogoeta ugari entzun dira
azkenaldian.**

Badirudi zikloa aritzen gare-
la, hamar urtean behin euska-
raren egoerari buruzko datu
mordoa dauzkagu eta gogoeta
ugari horri lotuta. Euskaltzain-
diaren barruan, euskararen
gogoeta guneak, eta hor, Jon
Sarasua buru dela egiten ari
den prozesuak, itzal handia
izan du. Sarasua aurkezpen
guztietan esaten ari da: orain
arte egindakoarekin ez da
nahikoa izango, ez dugu aurre-
ra egingo eta atzera egiteko
arrisku handia daukagu. Zer-
bait berria egin behar dugu
eta horretan nabarmena da
berariazko hizkuntza politika-
tik haragoko eremuak ukitu
behar ditugula; lan mundua,
harrera... hor badira hainbat
esparru urteotan nahiko maila
xumean landu direnak eta hor
zeharkakotasun handiagoa
behar dugu. Baina, esan duda-
nez, zeharkakotasun horrek
testuinguruaren arabera mol-
datuta joan behar du.

Adibidez, nahiko adostasun
daukagu lan munduan jauzi
bat egiteko abagunea dugula
esatean. Lan munduan euska-
raz trebatutako gazteak ditugu
gure lantokietan. Edo aisial-
diarekin ere bigarren urrats
bat eman behar dugula ikus-
ten da, D ereduko aisialdi bate-
ra joan behar dugula. Ados,
baina horrek tokian tokira
egokituta joan behar du.

Euskal Herriko eremu zabale-
tan oraindik D eredua ez da na-
gusi, beraz, D ereduko aisialdia
noski behar dela, baina ezin
dugu imajinatu D ereduko ai-
sialdi orokortu bat, baldin eta
udalerrri horretan eskolatan D
eredurik ez bada nagusi. Eta us-
te dut gogoeta horiek oso *auto-
nomia* erkidegozentristak dire-
nean, errealtate horiek ahaztu
egiten zaizkigula. Iruñerrian G
ereduan ikasle multzo oso han-
dia ari da. G ereduak esan nahi

du euskara ez dutela ezta ikasgai bezala ere ikasle horiek. Testuinguru horretan mugitzen ari gara, eta zer esanik ez Ipar Euskal Herrian. Uste dut gogoe-ta horiek tokian tokira egokitu behar ditugula, eta ezin dugu pentsatu EAEn egiten ari garen aurrerapauso horiek, batez ere eskolaren eta ezagutzaren alde-tik, Euskal Herri osoan gerta-tzen ari direnik.

Arnasguneetatik distantzia batekin ikusten ote den Euskal Herri osoaren egoera...

Batetik, garrantzitsua da beste inguruneak nola dauden ikus-tea. Baina, bestetik, horrek ba-dauka beste arrisku bat; beste testuinguru batzuetan okerra-go daudenez, gu oso ondo gau-dela pentsatzea, gure egoera arrosa kolorekoa irudikatzea. ‘Hemen euskararekin ez dago arazorik’. Hori askotan entzu-ten da ingurune batzuetan eta hori ere mahai gainean jarri behar da. Arnasguneetan euskararen egoera beste testuin-guru batzuetan baino hobea da, baina horrek ez du esan nahi dena eгина dagoenik, eta askotan sentrazio hori egon dela uste dut, gertatzen ari di-ren atzerakada horiek ez ikus-teraino. Arnasguneetan gauza asko dauzkagu oraindik egite-ko, euskara ez delako hizkun-tza normalizatu bat, hutsune nabarmenak daude.

Tolosaldean adibidez, arnas-gunerik arnasguneenean, herri-tarrak zein hizkuntzatan irakur-tzen du prentsa? Zein hizkuntzatan ikusten ditu ikus-entzunezkoak? Zein hizkuntza-tan dauka mugikorra konfigura-tua? Badauzkagu etxeko lanak.

Erabileraren oinarria egune-roko erabilera informala da eta hor arnasguneek sendotasun handiagoa daukate, baina ezin dugu pentsatu hizkuntzaren au-



rrerabidea horren esku bakarrik dagoenik. Kontrakoa ere ezin dugu pentsatu, euskararen era-bilera eremu formalean ari da aurrera egiten eta hor badauka-gu maila informalean pauso bat emateko premia. Osotasunari begiratu behar diogu.

Hainbeste hari-muturrekin, bada zer eta non ikertzen se-gitu.

Bai. Esaterako, egin dugun ar-gazki orokor horretan, udale-rriak hartu ditugu subjektu-tzat. Azterketa hori egin daiteke adinaren ikuspuntu-tik, Euskal Herriko 30 urtetik beherako herritarrak hartzen baditugu, zer geografia dauka-gu? Geografia horretan nabar-mena da Bizkaia zer nolako pisua daukan. Askotan aipa-tzen da euskalgintzaren *gipuz-koazentrismoa*; bada, ezagu-tzari begiratzen badiogu, Bizkaia da gero eta pisu gehia-go daukan lurraldea.

Generoaren ikuspegitik ere egin daiteke beste azterketa

bat. Eta datu soziolinguisti-koetatik harago ere egin dai-teke beste azterketa bat, adi-bidez eskoletako hizkuntza ereduen bilakaera zein den lurraldearen arabera, ikuste-ko horrek berak nola eragiten dion euskararen ezagutzaren aurrerabideari. Eta hor adibi-de argiena Nafarroa da, Nafa-rroan gero eta hegoalderago joan ezagutza txikiagoa nola den, baina baita ezagutzaren hazkundera ere. Konparatzen badugu Arabako Errioxarekin edo Lizarratik hegoaldeko es-kualdeen bilakaerarekin, na-barmena da hezkuntzan egin ez den aurrerapenak nola eragiten dion euskararen eza-gutzari. Nafarroan ustez za-balduko omen den zonifika-zioari buruzko eztabaidan mahai gainean jarri beharre-ko gaia da.

Askotan *totem* gisa aipatzen da euskararen ofizialtasuna, baina ez dakigu zer nolako on-dorioak izango dituen horrek. Bada, euskararen ofizialtasu-

«Gaur egun Nafarroako herririk populatuenetan ikasle multzo oso-oso zabal batek ez dauka harremanik euskararekin, beraz, alde horretatik hazkundera lortzea oso zaila da»

nak mahai gainean jarri behar lukeen gaitako bat hezkuntza-rena da eta uste dut korapilo nagusiena hor dagoela. Gaur egun Nafarroako herririk po-pulatuenetan –erdialdeaz eta hegoaldeaz ari naiz– ikasle multzo oso-oso zabal batek ez dauka harremanik euskarare-kin, beraz, alde horretatik haz-kundera lortzea oso zaila da.

Hari-mutur horietatik ea ez-tabaida batzuei ekiteko eta da-tuekin errealitate batzuk mahai gainean jartzeko gai ga-ren. Gaur egun Nafarroako he-rritar gehienak euskara ofizia-la ez den eremuetan bizi dira, eta azken datu soziolinguisti-koek argi erakusten digute Na-farroako euskaldun gehienak euskara ofiziala ez den udale-rrietan bizi direla. Beraz, garbi izan behar dugu ofizialtasunaz ari garenean ez garela ari lege batean idatzitako esaldi bati buruz, baizik eta herritarrei buruz, hizkuntzaren aurrerabi-deari buruz eta hizkuntza es-kubideei buruz.